



# GOBERNU BILERA

## Prentsa-Txostena Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

## Dossier de Prensa Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 15a

Vitoria-Gasteiz, 15 de julio de 2025

## Kultura eta Hizkuntza Politika

---

### **Eusko Jaurlaritzak 50.000 euroko dirulaguntza zuzena bideratuko dio Garabide Kultur Elkarteari eremu frankofonoko hizkuntza-komunitateekin lankidetzara sustatzeko**

Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskatuta, 50.000 euroko dirulaguntza zuzena onartu du Garabide Kultur Elkartearentzat. Dirulaguntza honen helburua da eremu frankofonoko hizkuntza-komunitateekin hizkuntza-lankidetzara sustatzea.

Eusko Jaurlaritzak euskararen ezagutzari garrantzia ematen dio eta horrexegatik balioan jarri nahi du beste hizkuntzekin egiten den lankidetzara. Lankidetzara horri esker euskarak dituen erronkak eta aukerak identifikatu daitezke. Azken urteetan lankidetzara-lerroak landu dira batez ere Hego Amerikako komunitateekin, baina oraingoan eremu frankofonokoak diren eta hizkuntza propioa duten komunitateekin sustatu nahi da harreman hori. Honi lotuta ere badago Etxepare Euskal Institututik martxan jarritako [Ça colle au basque](#) egitasmoa.

Garabide Kultur Elkartea hizkuntza-lankidetzarako gobernu kanpoko erakundea da, eta 2005ean sortu zenetik hizkuntza-lankidetzara du lan-eremu. Hortaz, kooperazioan eta hizkuntza-lankidetzara, bietan, lanean ari den erakunde bakarra da gaur egun EAEn. Horregatik guztiagatik, Jaurlaritzak onespena eman dio Garabide Kultur Elkarteari bideratutako dirulaguntzari.

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 891.000 euro baino gehiagoko dirulaguntza eman du ibilbide mistoen eredu pilotatzeko

- **Inklusiorako eta laneratzeko zortzi proiektu esperimental finantzatu dira, horien emaitzak Euskadi osoan erreplikatu daitezzen bazterkeria egoeran egon edo egoteko arriskuan dauden pertsonen laguntzeko orduan**

Gobernu Kontseiluak, Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburu Mikel Torresen proposamenez, 891.000 eurotik gorako dirulaguntza zuzena onartu du gaur, inklusiorako eta laneratzeko ibilbide mistoen eredu pilotatzeko. Laguntza hori zuzeneko dirulaguntzat hartzen da, interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioagatik.

Inklusiorako V. Euskal Planak dimentsio eta erakunde arteko fenomeno gisa definitzen du gizarte bazterkeria, eta administrazio publikoen esku uzten du sektore arteko koordinazio politikak antolatzea. Inklusiorako eta laneratzeko zortzi proiektu esperimental finantzatu dira, haien emaitzak eta ikaskuntzak erreplikatu, orokortu edo eskalatu ahal izateko, ondoren, Euskadi osoan bazterkeria egoeran egon edo egoteko arriskuan dauden pertsonen laguntzeko.

Era horretan, proposamen egituratuagoa eta sistematizatuagoa garatu nahi da, beharrezko malgutasunari eta malgutasun jakin bati eusteko eta eredu berria konfiguratzeko elementuak pilotatzeko, betiere ebidentziatik abiatuta. Hala, proiektuak gaizki edo eraginkortasunik gabe ezartzeak dakartzan arriskuak eta kostuak saihestuko dira.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak 2023tik egindako hasierako esperimentazioaren ondoren, eta emaitzak ebaluatu ostean, Eusko Jaurlaritzako Inklusio Zuzendaritzak gidatuko du, hemendik aurrera, inklusiorako ibilbide mistoen eredu berriaren gidaritza. 2025. eta 2026. urteetan garatuko den etapa berri horretan, eredu berriaren alderdi nagusiak *bottom-up* metodologiaren bidez probatu nahi dira, hau da, maila apalagoko azterketa ikuspegi batetik hasita, helburua da ondorio zabalago edo orokorrago batera iristea.

	PROIEKTUAREN IZENA	ERAKUNDE ONURADUNA	KOLEKTIBOA	Dirulaguntzar en zenbatekoa
1	Sartu: osasun mentala	Sartu Álava	Osasun Mentalaren Sareko pertsonak	72.660 €
2	Empleando.nos	ADSIS fundazioa	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	67.460 €
3	Bilbo Zaharreko Mahaia	Agiantza Elkartea, Gaztaroa-Sartu Kooperatiba Elkartearekin (nortasun juridikorik gabeko taldea) osatutako taldearen ordezkari gisa	Gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak	68.633,12 €

4	Emakera	EDE Fundazioa, San Prudentzio Lan Fundazioarekin (nortasun juridikorik gabeko taldea) osatutako taldearen ordezkaria	Bazterkeria arriskuan dauden emakumeak eta/edo indarkeria matxistatik bizirik atera direnak	74.961,13 €
5	Gizakia	Fundación Gizakia	Adikzio arazoak dituzten pertsonak	99.838,89 €
6	Elkar hobetzen	Gaztaroa-Sartu Koop.	Familia erantzukizunak dituzten emakumeak	67.781,12 €
7	Batzen	Zabalduz Koop.	18 urtetik gorako gazteak, GFaren Babes Sistematik ateratzen direnak edo Familiar Esku Hartzen ari direnak	302.343,48 €
8	Jarraipen eta Laguntza Taldea (ESA)	Dirdira Koop.	Esku hartzean parte hartu duten profesionalak	137.585 €
<b>GUZTIRA</b>				<b>891.262,74 €</b>

## Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna

---

### **Eusko Jaurlaritzak 120 milioiraino handitu du ikerketa industrialia sustatzeko aurrekontua**

- **Imanol Pradales Lehendakariak sustatutako Industria Defendatzeko Taldean hartutako konpromisoa beteko da hala, eta, horren bidez, aurtengo lehen hiruhilekoan Hazitek programan aurkeztu diren proiektuak baino gehiago finantzatu ahal izango dira**
- **SPRI Taldeak kudeatzen duen programaren aurrekontu-zuzkidura 93 milioi eurotik 120 milioi eurora pasatu da, eta ikerketa industrialaren aldeko apustua 27 milioi handitu da**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Hazitek programaren bidez euskal enpresentzako ikerketa industrialia sustatzeko aurrekontua 27 milioi eurotan handitzeko; hala, aurtengo lehen hiruhilekoan aurkeztutakoak baino proiektu gehiago finantzatu ahal izango dira. Horrela, Imanol Pradales Lehendakariak sustatutako Industria Defendatzeko Taldean hartutako konpromisoetako bat bete du Eusko Jaurlaritzak. Zehazki, hasierako 93 milioi euroetatik 120 milioira pasa da programa honen aurrekontua.

27 milioi horietatik, 11,45 aurten bertan egikarrituko dira, eta gainerakoa hurrengo hiru urteetan; beraz, Jaurlaritzak dagokion konpromiso-kreditua onartu du.

[HAZITEK programa](#)ren helburua da ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak finantzatzea, bai izaera lehiakorrekoak, bai izaera estrategikokoak, Industria Adimendunaren, Energia Garbien eta Osasun Pertsonalizatuaren arloetan. Bi kasuetan jasangarritasun-alderdiek garrantzi handiagoa izango dute.

### **HAZITEK laguntza-programa**

Programaren helburua —laguntzak SPRI Taldeak kudeatzen ditu— euskal industria indartzea da, enpresen I+G jardueraren bidez, eta horretarako modu erabakigarrian laguntzen dio euskal ekoizpen-sarearen lehiakortasun globalari, eta eragin ekonomiko adierazgarria izan dezaketen emaitzak sortzen ditu. Euskadirentzat estrategikokoak diren espezializazio-eremuetan eta merkatutik hurbilen dauden I+G faseetan ardaztutako laguntzak eskaintzen dira.

Ohikoa denez, programak bi laguntza-ildo ditu: izaera lehiakorreko ikerkuntza industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak eta izaera estrategikoko ikerkuntza industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak.

2024ko deialdian, Hazitek programak 654 proiektu finantzatu zituen, eta guztira 91,2 milioi euro eman dirulaguntzatan. Horrek 265 milioi euroko inbertsio pribatua mobilizatu zuen Euskadiko 759 enpresatan Ikerketa Industrialeko eta Garapen Esperimentaleko jardueretan. Izaera lehiakorreko ildoan 623 proiektu lagundu ziren eta 666 enpresak

parte hartu zuten; izaera estrategikoko ildoan 31 proiektu lagundu ziren eta 184 enpresak parte hartu zuten.

Industriarentzako laguntza-programei buruzko informazio guztia [SPRI Taldearen webgunean](#) kontsulta daiteke.

## Segurtasuna

---

### **Gobernu Kontseiluak Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen dekretua onartu du**

- **Joan den martxoan sindikatuen negoziazio-mahaian sinatu zen akordio arautzaile honek etorkizuneko Ertzaintzaren oinarriak finkatzen ditu, herritarrei ematen dien zerbitzua hobetuz eta modernizatuz**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen 2025-2028 aldirako akordioa onartzen duen dekretua. Akordio hori joan den martxoan sinatu zuten Segurtasun Sailak eta Ertzaintzaren ordezkariak sindikalaren hiru laurden baino gehiago ordezkatzeko dituzten ERNE, ESAN eta SIPE sindikatuek.

XIII. Legegintzaldiko Gobernu Programan bete den beste konpromiso bat da, 38. konpromisoan baitago jasota “Ertzaintzaren egitura hobetzea eta modernizatzea”, horretarako “Ertzaintzaren lan-baldintzak arautzen dituen akordioari buruzko elkarrizketa eta ituna” bultzatuz.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak 45 milioi euro inbertituko ditu, progresiboki, 2028ra arte, etorkizuneko Ertzaintza indartzeko. Horretarako, ordainsari-igoera mailakatua izango da 2028ra arte, betiere lanpostu bakoitzaren funtzioetara egokituta, ertzainen etengabeko prestakuntza bultzatuz, ikerketan eta inteligentzian espezializatzea bultzatuz egungo gizarteak planteatzen dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko, besteak beste. Halaber, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzearen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan ere sakontzen du.

Akordio arautzaile berriaren neurriak uztailaren amaieratik abuztuaren hasierara bitartean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren hasiko dira aplikatzen. Kontuan izan behar da, akordio arautzaile berriak dakartzan aldaketen ondorioz, nomina berriak behar bezala kalkulatzeko erabiltzen den aplikazio informatikoan eguneratze garrantzitsuak egin behar direla. Horregatik, akordio arautzaile berriarekin bat datozen ordainketak urriko nominan hasiko dira ordaintzen.

Dekretu honen helburua da herritarrei zerbitzurik onena eskaintzea, Ertzaintzak Euskadin ematen duen zerbitzua etengabe hobetuz eta modernizatuz, eta, horrekin, polizia integralaren izaera sendotuz.

## Hezkuntza

---

### Hezkuntza sailak Eskola Txikien Sarea indartuko du Ispastererako zentro berri batekin

- **Hezkuntza Sailak Hezkuntza Eraiki 2030 estrategia hedatzen jarraitzen du, eta beste urrats bat egingo du Ispasterren haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikitzeko**

Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntzako sailburu Begoña Pedrosak proposatuta, Ispaster HLHI ikastetxe berriaren obretarako kontratuaren baimena onartu du Gobernu Kontseiluan. Jarduketak 6.295.886,42 euroko inbertsioa izango du. Azpiegitura berria egungo eraikina dagoen partzelan kokatuko da, eta, beraz, dagoen eskola eraitsi egingo da. Era berean, irakaskuntza-erabilerako partzela mugakide bat gehituko da, eta horren emaitza ia 2.000 metro koadroko partzela bat izango da.

Ikastetxe berriak honako elementu hauek izango ditu: irakaskuntza-eremua (haur-hezkuntzako bi gela, lehen hezkuntzako hiru gela, banaketa-gela bat, informatika-gela bat, musika-gela bat eta liburutegi bat), eremu komunak (jantokia, sukaldea eta elementu erantsiak, eta gimnasioa eta elementu erantsiak), administrazio-eremua (zuzendaritza-/idazkaritza-eremua, artxiboa, irakasleen gela) eta zerbitzu komunak (komunak, aldagelak, biltegiak, garbiketa-gela...). Kanpoko espazioen artean, jolasgune estali bat eta patioaren zabalkuntza (jolasgune berri batekin) nabarmentzen dira.

Horrela, beraz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikuspegi propioko sare bat osatzen duten Eskola Txikientzako babesak gauzatu du berriz ere. Inguruarekiko atxikimendu handiarekin, ikaskuntza-eredu aitzindariarekin eta metodologia iraultzaileekin, Eskola Txikiak jarraitu beharreko ereduak dira.

#### **Hezkuntza Eraiki 2030**

Ispasterko Eskola Txikia Euskadiko hezkuntza-azpiegituren estrategia integralaren barruko obretako bat da. Estrategia horrek Euskadiko ikastetxe guztiek espazio modernoak, irisgarriak, jasangarriak eta metodologia pedagogikorik aurreratuenekin bat datozenak izatea du helburu.

Estrategiak 750 milioi euroko aurrekontua izango du azpiegiturretan inbertitzeko eta, ildo horretan, Euskadin 250 esku-hartze baino gehiago egiteko. Nolanahi ere, hezkuntza-azpiegituren berritzea eta modernizazioa (eskola-komunitatearen beharrei erantzuteko) eta metodologia aktiboen inplementazioa (ikaskuntza malgu eta moldakorrerako diseinatutako espazioetan) lehenetsiko dira. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak abian jarriko duen ekimen estrategiko horrek azken belaunaldiko ekipamendu inklusiboa eta teknologikoa sustatzea du helburu, baita jasangarritasuna bultzatzea ere, energia-efizientziako sistemak (hala nola geotermia edo aerotermia) instalatzearen, eguzki-plakak berritzearen eta fatxadak material iraunkorrekin birgaitzearen bidez.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak hiru milioi euroko laguntzak deitu ditu arrantza eta akuikulturako ekoizleen erakundeentzat

- **OPESCAYAk, OPEGUIk eta OPPAOk** modu jasangarrian kudeatzen dituzte arrantza-baliabideak eta kuotak, gutxieneko neurriak eta debekualdiak betetzen direla ziurtatzen dute
- Halaber, arrantzako jardunbide egokiak sustatzen dituzte, ekoizpena planifikatzen dute, arrantza merkatuaren eskarira egokitzen dute eta gehiegizko arrantza eta gehiegizko eskaintza saihesten dituzte

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari, arrantzako eta akuikulturako produktuen sektoreko merkatuen antolaketa erkidearen barruan **arrantzako eta akuikulturako ekoizleen** hiru erakundeen –OPESCAYA, OPEGUI eta OPPAO– jarduerari laguntzak, **guztira hiru milioi euro**, emateko deialdia egiten duenari.

**Amaia Barredo** sailburuak adierazi duzuenek, “aginduak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzako eta akuikulturako ekoizleen erakunde guztiek bete behar dituzten gehieneko **finantzaketa-zenbatekoak eta baldintzak** Europako Parlamentuaren eta Europar Batasunaren Erregelamenduan, EIAAF – Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsa ezartzen duenean, aurreikusitako laguntzak lortzeko. Onuradunak egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten arrantzako eta akuikulturako **ekoizleen erakundeak** dira.

**Deialdiaren zenbateko osoa 3.000.000,00 eurokoa izango da** 2025ean, eta funts horretatik % 70, 2.100.000,00 euro, **Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtzari (EIAAF)** dagozkio, eta gainerako % 30, hau da, 900.000,00 euro, Euskadiko aurrekontuei dagozkie.

**Arrantzako Ekoizleen Erakundeak (OPP)** ofizialki aitortutako elkarteak dira, arrantza-sektoreko arrantzaleek eta enpresek osatutakoak, eta horien helburu nagusia da arrantza-produktuen ekoizpena eta merkaturatzea antolatzea, modu jasangarrian, eraginkorrean eta lehiakorrean egin daitezen.

Hiru dira: **OPESCAYA**, Bizkaiko Baxurako Arrantza Ekoizleen Erakundea, 1986an sortua eta **Bizkaiko** kostaldeko artisau-flotak biltzen dituena. Bere misioa da arrantza arrazionala bermatzea eta salmenta-baldintzak hobetzea, bai eta hainbat produktu, hala nola, hegaluzea, sustatzeko kanpainak bultzatzea ere. **OPEGUI Gipuzkoako** baxurako OPPa da, eta Kantauriko Ekoizleen Erakundeen Elkarteko (AOP) kidea da OPESCAYArekin eta OPPAOrekin batera. AOP hori estatuko lehena da, eta Kantauriko OPPak koordinatzen ditu kuoten eta merkatuen kudeaketa jasangarriaren arloan. Hirugarrena **OPPAO** da, **Ondarroako alturako** OPPa, alturako arrantzan diharduena.

Prestakuntza, aholkularitza eta arrantza-ahaleginaren kudeaketa eta lankidetzazientifikoa eskaintzen ditu, eta elkarlan estuan aritzen da Arrantza Eskolarekin eta administrazioekin.

### Helburuak

Horien **helburu nagusiak** dira arrantza baliabideak modu jasangarrian **kudeatzea**; kuotak, gutxieneko neurriak eta debekualdiak **betetzen** direla ziurtatzea; arrantza  **jardunbide egokiak** sustatzea; ekoizpena planifikatzea; arrantza ahalegina merkatuaren **eskarira** egokitzea; **gehiegizko arrantza** eta gehiegizko eskaintza saihestea; **merkaturatzea** eta balio erantsia hobetzea; produktuen **kalitatea**, etiketatzea eta trazabilitatea sustatzea; arrantzaleek **balio katean** posizio hobea izan dezaten laguntzea, arrantza sektorearen **interesak** defendatzea eta kideak agintari eta erakundeen aurrean **ordezkatzea**.

“Gobernu Kontseiluak onartutako laguntzak hil honen amaieran argitaratuko dira EHAAn, eta hiru erakunde horien jarduerari laguntzeko dira. Jarduera hori urtero, aurreko urtea amaitu aurretik, aurkezten dituzten ***Ekoizpen eta Merkaturatze Planetan*** (PPyC) jasotzen da. Plan horietan oinarrituta, erakunde horietako bakoitzari esleitzen zaion laguntzaren zenbatekoa kalkulatu da”, azaldu du **Amaia Barredok**.

OPPk nahitaez landu behar dituzte urtero dokumentu horiek, eta bertan zehazten da **“zer, nola, noiz eta non arrantzatu eta merkaturatuko den produktua**, Europar Batasuneko Arrantza Politika Bateratuaren (APB) helburuak betez. EIAAF funtsekin batera finantzatzen dira.

***Ekoizpen eta Merkaturatze Plan*** batek planteatzen diren jarduera guztien deskribapena jasotzen du orokorrean. Eusko Jaurlaritzak aztertu egiten du, finantzaketa proposatutako zein jarduerak jaso dezakeen erabakitzeko. Agindua argitaratu ondoren, hiru OPPetako bakoitzeko ebazpen bat ematen da, aurkeztutako planentzat onartutako zenbatekoa zein den adierazita.

Plan batek jasotzen dituen **atalak** dira diagnostikoa, ekoizpen- eta merkaturatze-neurriak, jasangarritasuna, aurrekontua eta adierazleak.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

---

### Amaia Barredok ziurtatutako ekoizpen ekologikorako trantsiziorako laguntzak deituko dituela iragarri du

- Aurrekontua 300.000 eurokoa da
- **Bi mota:** aholkularitzarako eta ezagutzak transferitzeko laguntza eta ustiategi konbentzionalak ustiategi ekologiko bihurtzeko proiektuak garatzeko laguntza
- **Laguntzak ziurtatutako ekoizpen ekologikorako trantsiziorako; ekoizpen ekologikoan sartzeko gidaliburuak sortzeko; bideragarritasun-azterketak, erakusketa-jarduerak eta bisitak egiteko; eta aholkularitza integralerako**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari, **ziurtatutako ekoizpen ekologikorako trantsiziorako laguntzen** 2025erako oinarriak onartzeko denari. Aurrekontua 300.000 eurokoa da.

**Amaia Barredo** sailburuak zehaztu duenez, “**lehentasun** politikoa da ingurumenaren aldetik jasagarriak diren ekoizpen-metodoetarantz jotzea, hain zuzen ere, Europako herritarrek egiten dituzten eta **baserritik mahaira** estrategian edo **biodibertsitatearen** estrategian islatzen diren eskaera sozialak direla-eta, Europar Batasun osoko nekazaritza-azaleraren % 25 ekoizpen ekologikora bideratzea edo banaketa-lerroetan produktu ekologikoen eskaria handitzea aldarrikatzen baitute”.

“Nekazaritza-sektoretik garapen jasagarriko eta 2030 agendako helburuak betetzen lagundu behar dugu gure esku dauden esparruetan, hala nola **klima-aldaketaren aurkako borrokan, elikadura osasungarriaren** sustapenean edo lurzorua eta **ekosistema naturalak** babestean”, erantsi du **Amaia Barredok**.

Barredo sailburuak emandako datuen arabera, “nekazaritzak **erronka** bati egin behar dio aurre: **elikagai eta zuntz gehiago** ekoiztu behar ditu munduko biztanleria gero eta handiagoa elikatzeko, aurreikuspen demografikoen arabera, mende amaieran 10.000 milioi pertsona izan baitaitezke, eta horrek esan nahi du baliabideen eskaria % 70 handituko dela”.

“Gainera –erantsi du Barredok aginduari buruzko azalpenak ematean–, elikagaien ekoizpenaren hazkunde hori **klima-aldaketaren** testuinguruan gertatu behar da, **baliabide naturalen gero eta eskasia handiagoa** eta **gero eta eskulan gutxiago egonik** eta kontuan izanik **munduko biztanle gehienak hiriguneetan bizi** direla; kalkuluen arabera, biztanleria osoaren % 60 hiriguneetan biziko da, eta 70eko hamarkadan % 40 baino ez zen bizi. Ez dugu ahaztu behar, halaber, gatazka beliko bat dagoela gaur egun Europaren bihotzean eta, horren eraginez, elikagaien hornidura eta prezioa nabarmen baldintzatuta daudela”.

**Amaia Barredoren** ustez, “**etorkizuneko edozein agertokik** proteina-iturri berriak

eskaten ditu, eta barazkiak ekoizteko ur, ongari eta fitosanitario gutxiago behar dituzten sistemak, bai eta elikagai-galera eta -hondakinak geldiaraztea ere. Horregatik, agindu honen helburua da **Euskadin ekoizpen konbentzionalaren zati bat ekoizpen ekologikorako trantsizioan jartzea** sustatuko duten jarduerak bultzatzea, betiere, ekoizpen-ereduen arteko liskarrik eragin gabe eta bi ekoizpen-sistemetako ekoizleen arteko errezeloak gainditzen lagunduz”.

### **Bi mota**

Horretarako, bi motatako laguntzak proposatzen dira: batetik, **aholkularitzarekin eta ezagutza eta informazioa transferitzearekin** lotutakoak nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan, eta **ekoizpen konbentzionaleko nekazaritza-ustiategiak ekoizpen ekologikora bihurtzeko proiektuak garatzen laguntzekoak**.

2025eko ekitaldirako, ziurtatutako ekoizpen ekologikorako trantsiziorako laguntzak deituko dira «**Ekoizpen ekologikoan sartzeko gidaliburuak**» sortzen laguntzeko; ekoizpen ekologikora bihurtzeko proiektuen **bideragarritasun-azterlanak** egiten laguntzeko; **erakusketa-jarduerak eta bisitak** egiteko; ekoizpen ekologikora bihurtzeko **aholkularitza integrala** emateko; **ekoizpen ekologikoan espezializatutako aholkularitzarako**; eta ekoizpen konbentzionaleko nekazaritza-ustiategiak **ekoizpen ekologikora bihurtzeko proiektuak garatzeko**.

Laguntzak osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura finantzatuko dira. Agindu honen bidez deitutako laguntzak finantzatzeko, 300.000 euroko **aurrekontu-kredituak** erabiliko dira.

## Justizia eta Giza Eskubideak

---

### Giza eskubideen 2025eko René Cassin Sarirako deialdia egin da

Gobernu Kontseiluak, María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak proposatuta, René Cassin Sariaren XXII. edizioaren deialdia onartu du gaur. Saria 2003an sortu zen, giza eskubideen arloan egindako jarduketa esanguratsuak publikoki aitortzeko. 25.000 euroko saria da, eta helburua da giza eskubideak sustatzen, defendatzen eta hedatzen konpromiso pertsonal edo profesionala nabarmendu duten pertsonak eta erakundeak saritzea.

Epaimahaikideak bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruan ospe handia duten pertsonak dira. Hauek dira: Arritxu Marañón Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordea, Manuela Mesa CEIPAZ Bakearen Ikerketarako Hezkuntza Zentroaren zuzendaria, María Ojanguren Gernika Gogoratz zentroaren zuzendaria eta 2010ko René Cassin sariduna, Izaskun Saez De la Fuente (Deustuko Unibertsitateko Gizarte Eraikuntzarako Etika Masterreko zuzendaria), Miren Elgarresta (Emakundeko zuzendaria), Juan José Álvarez (Nazioarteko Zuzenbideko katedraduna EHU-UPVn), Mikel Mancisidor (NBEko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeko kidea), Carlos Martín Beristain (Giza Eskubideetan aditua, 2020ko René Cassin sariduna), Bárbara Ruiz Balzola (UNRWako ordezkaria, 2024ko René Cassin sariduna), eta Ainhoa Zugasti Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako zuzendaria.

Saria 25.000 eurokoa da, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena eta sariaren sorreraren 20. urteurrena ospatzeko 2023an onartutako igoeraren ondoren. Sariak René Cassini zor dio izena. René Cassin Baionan jaio zen 1887an, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren sustatzaile nagusitzat hartzen da. Cassinek Bakearen Nobel Saria jaso zuen 1968an, giza eskubideen alde egindako lan nekaezinarengatik.

Saria jaso duten pertsonen eta erakundeen artean daude: Maiatzeko Plazako Amonak Elkartea Zibila, Desmond Tutu, Sexual Minorities Uganda, Federico Mayor Zaragoza, Alec Reid, Koro Erdozia Lasa, Elisa Loncon Antileo, Dora María Téllez, ICDP – Heriotza Zigorren Aurkako Nazioarteko Batzordea eta, iazko edizioan sariduna, UNRWA, Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslariei Laguntzeko Nazio Batuen Agentzia.

Saria abenduan emango da, abenduaren 10ean Giza Eskubideen Eguna ospatzen den egun berean, eta hautagaitzak datozen hilabeteetan aurkeztu ahal izango dira.

## Cultura y Política Lingüística

---

**El Gobierno Vasco destina una subvención directa de 50.000 euros a Garabide Kultur Elkartea para fomentar la colaboración con las comunidades lingüísticas del ámbito francófono**

El Gobierno Vasco, a petición del Departamento de Cultura y Política Lingüística, ha aprobado una subvención directa de 50.000 euros para Garabide Kultur Elkartea. El objetivo de esta subvención es fomentar la cooperación lingüística con las comunidades lingüísticas del ámbito francófono.

El Gobierno Vasco da importancia al conocimiento del euskera y por ello quiere poner en valor la colaboración con otras lenguas. Esta colaboración permite identificar los retos y oportunidades que tiene el euskera. En los últimos años se han trabajado líneas de colaboración sobre todo con comunidades de Sudamérica, pero en esta ocasión se trata de fomentar esa relación con comunidades que pertenecen al ámbito francófono y que tienen una lengua propia. Ligado a esto está también el proyecto “Ça colle au basque” puesto en marcha desde el Instituto Vasco Etxepare.

Garabide Kultur Elkartea es una organización no gubernamental de cooperación lingüística que desde su creación en 2005 tiene como ámbito de trabajo la cooperación lingüística. Es, por tanto, la única entidad que trabaja en cooperación y cooperación lingüística en la CAPV.

Por todo ello, el Gobierno ha dado su aprobación a la subvención destinada a la Asociación Cultural Garabide.

## Economía, Trabajo y Empleo

### El Departamento de Economía, Trabajo y Empleo subvenciona con más de 891.000 euros el pilotaje del modelo de itinerarios mixtos

- Se financiarán ocho proyectos experimentales de inclusión sociolaboral para que sus resultados puedan ser replicados en el acompañamiento de personas en riesgo o exclusión del conjunto de Euskadi

El Consejo de Gobierno, a propuesta del Vicelehendakari y consejero de Economía, Trabajo y Empleo, Mikel Torres, ha aprobado hoy una subvención directa de más de 891.000 euros para realizar el pilotaje del modelo de itinerarios mixtos de inclusión sociolaboral. Esta ayuda tiene consideración de subvención directa por razones de interés público, social, económico y humanitario.

El V Plan vasco de Inclusión define la exclusión social como un fenómeno multidimensional e interinstitucional y encomienda a las administraciones públicas la articulación de políticas de coordinación intersectorial. Se financiarán ocho proyectos experimentales de inclusión sociolaboral para que sus resultados y aprendizajes puedan ser replicados, generalizados o escalados, posteriormente, en el acompañamiento de personas en riesgo o exclusión del conjunto de Euskadi.

De esta forma, se busca desarrollar una propuesta más estructurada y sistematizada que preserve una necesaria y determinada flexibilidad y faculte pilotar aquellos elementos de configuración del nuevo modelo, siempre desde la evidencia. Se evitarán así los riesgos y costos asociados a una implementación fallida o ineficaz de proyectos.

Tras la experimentación inicial llevada a cabo por Lanbide – Servicio Vasco de Empleo desde el año 2023 y haber evaluado sus resultados, la Dirección de Inclusión del Gobierno Vasco liderará a partir de ahora el pilotaje del nuevo modelo de itinerarios mixtos de inclusión. En esta nueva etapa, que se desarrollará durante los años 2025 y 2026, se pretende testar los aspectos centrales del nuevo modelo a través de la metodología *bottom-up*, es decir, partiendo de un enfoque de análisis de un nivel inferior, el objetivo es llegar a una conclusión más amplia o general.

	DENOMINACIÓN DEL PROYECTO	ENTIDAD BENEFICIARIA	COLECTIVO	<u>Importe de la subvención</u>
1	Sartu: salud mental	Sartu Álava	Personas de la Red de Salud Mental	72.660 €
2	Empleando.nos	Fundación ADSIS	Jóvenes entre los 16 y los 30	67.460 €

3	Mesa Bilbao la Vieja	Agiantza Elkartea, en representación de la agrupación formada con Gaztaroa-Sartu Kooperatiba Elkartea (agrupación sin personalidad jurídica)	Personas en situación o riesgo de exclusión social	68.633,12 €
4	Emaukera	Fundación EDE, en representación de la agrupación formada con la Fundación Laboral San Prudencio (agrupación sin personalidad jurídica)	Mujeres en riesgo de exclusión y/o supervivientes de violencia machista	74.961,13 €
5	Gizakia	Fundación Gizakia	Personas con problemáticas de adicción	99.838,89 €
6	Elkar hobetzen	Gaztaroa-Sartu Koop.	Mujeres con responsabilidades familiares	67.781,12 €
7	Batzen	Zabalduz Koop.	Jóvenes mayores de 18 años que salen del Sistema de Protección de la DFG o están en Intervención Familiar	302.343,48 €
8	Equipo de Seguimiento y Apoyo (ESA)	Dirdira Koop.	Profesionales participantes en la intervención	137.585 €
<b>TOTAL</b>				<b>891.262,74 €</b>

## Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

---

### **El Gobierno Vasco amplía hasta 120 millones el presupuesto para apoyar la investigación industrial**

- **Cumple así el compromiso adoptado en la Mesa de Defensa de Industria promovida por el Lehendakari Imanol Pradales y se podrán financiar más proyectos de los ya presentados en el primer trimestre de este año al programa Hazitek**
- **La dotación presupuestaria del programa, gestionado por el Grupo SPRI, pasa de 93 a 120 millones de euros, aumentando la apuesta por la investigación industrial en 27 millones**

El Consejo de Gobierno ha autorizado la ampliación en 27 millones de euros del presupuesto destinado a apoyar la investigación industrial para las empresas vascas a través del programa Hazitek, de forma que se podrán financiar más proyectos de los ya presentados en el primer trimestre de este año. El Gobierno Vasco cumple así uno de los compromisos adoptados en la Mesa de Defensa de Industrial promovida por el Lehendakari Imanol Pradales. Concretamente, de los 93 millones de euros iniciales este programa estará dotado finalmente con 120.

De esos 27 millones, 11,45 se ejecutarán este mismo año y el resto en los años tres años siguientes por lo que el Gobierno ha aprobado el correspondiente crédito de compromiso.

El [programa HAZITEK](#) está dirigido a financiar la realización de proyectos de Investigación Industrial o Desarrollo Experimental, tanto de carácter competitivo, como de carácter estratégico en los ámbitos de Industria Inteligente, Energías Limpias y Salud Personalizada. En ambos casos se da mayor relevancia de los aspectos de sostenibilidad.

#### **Programa de ayudas HAZITEK**

El objetivo último del programa, cuyas ayudas se gestionan desde el Grupo SPRI, es el fortalecimiento de la industria vasca a través de la actividad de I+D empresarial, contribuyendo de manera decisiva a la competitividad global del tejido productivo vasco y generando resultados con potencial de impacto económico significativo, a través de un apoyo focalizado en los ámbitos de especialización estratégicos para el País Vasco, y en las fases de la I+D más próximas al mercado.

Como viene siendo habitual, el programa integra dos líneas de apoyo diferenciadas: a proyectos de I+D de carácter competitivo y al desarrollo de proyectos de I+D de carácter estratégico.

En su convocatoria del 2024 Hazitek financió 654 proyectos con una subvención total de 91,2 M€, lo que movilizó 265 M€ de inversión privada en actividades de Investigación Industrial y Desarrollo Experimental de un total de 759 empresas de Euskadi diferentes. En la línea de competitivos se apoyaron 623 proyectos con participación de 666

empresas diferentes y en la línea de estratégicos fueron 31 los proyectos apoyados con la participación de 184 empresas.

Toda la información sobre los diferentes programas de ayudas a la industria se puede consultar [en la web del Grupo SPRI](#).

## Seguridad

---

### **El Consejo de Gobierno aprueba el Decreto que regula las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza**

- **Este Acuerdo Regulador, firmado en la mesa de negociación sindical el pasado mes de marzo, sienta las bases de la Ertzaintza del futuro mejorando y modernizando el servicio que se presta a la ciudadanía**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Decreto por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza para los años 2025-2028. Un acuerdo que se firmó el pasado mes de marzo entre el departamento de Seguridad y los sindicatos ERNE, ESAN y SIPE, que representan más de tres cuartos de la representación sindical de la Ertzaintza, en la Mesa de Negociación de la Ertzaintza.

Se trata de un nuevo compromiso cumplido del Programa de Gobierno de la XIII legislatura que recoge en su compromiso número 38: “Mejorar y modernizar la estructura de la Ertzaintza” impulsando para ello “el diálogo y el pacto sobre el Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo de la Ertzaintza”.

Para ello, el Gobierno Vasco invertirá, de manera progresiva hasta 2028, 45 millones de euros en fortalecer la Ertzaintza del futuro, contemplando un incremento retributivo gradual hasta 2028, siempre adaptado a las funciones de cada puesto de trabajo, impulsando la formación continua de las y los ertzainas, así como la especialización en investigación e inteligencia para poder hacer frente a los nuevos retos que plantea la sociedad actual, entre otras cuestiones, que incorporan la mayor complejidad del servicio. Asimismo, se profundiza en materia de conciliación de la vida personal, familiar y laboral y de igualdad de mujeres y hombres.

Las distintas medidas del nuevo Acuerdo regulador empezarán a aplicarse tras su publicación, entre finales de julio y principios de agosto, en el Boletín Oficial del País Vasco. Hay que tener en cuenta que, como consecuencia de los cambios que conlleva el nuevo Acuerdo Regulador, está siendo necesario realizar importantes actualizaciones en la aplicación informática utilizada para calcular debidamente las nuevas nóminas. Por ello, los pagos acordes al nuevo Acuerdo Regulador comenzarán a abonarse en la nómina de octubre.

El objetivo de este Decreto es ofrecer el mejor servicio a la ciudadanía vasca a través de la mejora constante y la modernizando del servicio que la Ertzaintza presta en Euskadi, fortaleciendo su carácter de policía integral.

## Educación

---

### Educación refuerza la Red de Eskola Txikiak con un nuevo centro para Ispaster

- **El Departamento de Educación continua el despliegue de la Estrategia Hezkuntza Eraiki 2030 dando un paso más para la construcción de un nuevo centro de infantil y primaria en la localidad de Ispaster**

Gobierno Vasco ha aprobado en Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Educación Begoña Pedrosa, la autorización del contrato para las obras del nuevo centro CEIP Ispaster. La actuación supondrá una inversión de 6.295.886,42 €. La nueva infraestructura se ubicará en la parcela donde se encuentra el edificio actual, por lo tanto, se demolerá la escuela existente. Asimismo, se añadirá una parcela colindante de uso docente, el resultante será una parcela de casi 2.000 metros cuadrados.

El nuevo centro educativo, se compondrá de zona docente (dos aulas de infantil, tres aulas de primaria, un aula de desdoble, un aula de informática, un aula de música y una biblioteca), zonas comunes (comedor, cocina y sus anexos, y gimnasio y sus anexos), zona de administración (área de dirección/secretaría, archivo, sala de profesorado), servicios comunes (aseos, vestuarios, almacenes, cuarto de limpieza...) Entre los espacios exteriores destaca una zona de juegos cubierta y la ampliación del patio con una nueva zona de juegos.

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco materializa así una nueva muestra del apoyo a las Eskola Txikiak que forman una red con visión propia. Con un gran apego a su entorno, un modelo de aprendizaje pionero y metodologías revolucionarias, las Eskola Txikiak constituyen un modelo a seguir.

#### **Hezkuntza Eraiki 2030**

La Eskola Txikia de Ispaster es una de las obras que se enmarca en la estrategia integral de infraestructuras educativas de Euskadi que busca garantizar que todos los centros educativos de Euskadi dispongan de espacios modernos, accesibles, sostenibles y alineados con las metodologías pedagógicas más avanzadas.

La estrategia cuenta con un presupuesto de 750 millones de euros de inversión en infraestructuras para más de 250 intervenciones en Euskadi, priorizando la renovación y modernización de infraestructuras educativas para responder a las necesidades de la comunidad escolar y la implementación de metodologías activas en espacios diseñados para el aprendizaje flexible y versátil. A su vez, esta iniciativa estratégica que encara el Ejecutivo Vasco también busca fomentar la dotación de equipamiento inclusivo y tecnológico de última generación y el impulso de la sostenibilidad mediante la instalación de sistemas de eficiencia energética, como geotermia o aerotermia, la renovación de placas solares y la rehabilitación de fachadas con materiales sostenibles.

## Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

### El Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca convoca ayudas, de tres millones de euros, a las organizaciones de productores de pesca y acuicultura

- **OPESCAYA, OPEGUI y OPPAO gestionan los recursos pesqueros de manera sostenible y aseguran el cumplimiento de cuotas, tallas mínimas y vedas**
- **También promueven buenas prácticas de pesca, planifican la producción, ajustan la pesca a la demanda del mercado y evitan la sobrepesca y la sobreoferta**

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno a la orden de la consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se convocan las ayudas, de un total de **tres millones de euros**, a las actividades de las tres organizaciones de **productores de pesca y acuicultura** -OPESCAYA, OPEGUI y OPPAO- dentro de la organización común de mercados en el sector de los productos de la pesca y de la acuicultura.

Según indica la Consejera **Amaia Barredo** “la orden establece los importes máximos de **financiación** y los **requisitos** que han de cumplir todas las organizaciones de productores de la pesca y de la acuicultura (OPP) del País Vasco, para la obtención de las ayudas previstas en el Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo de la Unión Europea por el que se establece el Fondo Europeo Marítimo, de Pesca y de Acuicultura-FEMPA. Las beneficiarias son las **organizaciones de productores** de la pesca y de la acuicultura (OPP) con sede social en el País Vasco”.

La **cuantía de esta convocatoria será de 3.000.000 euros** en 2025. De dichos fondos el 70 % -2.100.000 euros- corresponde al **Fondo Europeo Marítimo, de Pesca y Acuicultura (FEMPA)**, y el 30 %, -900.000 euros-, a los presupuestos de Euskadi.

Las **Organizaciones de Productores de la Pesca-OPP** son asociaciones reconocidas oficialmente, formadas por pescadores o empresas del sector pesquero, cuyo objetivo principal es organizar la producción y comercialización de los productos pesqueros, para que se realicen de forma sostenible, eficiente y competitiva.

Son tres: **OPESCAYA**, Organización de Productores de Pesca de Bajura de **Bizkaia**, constituida en 1986, agrupa a flotas artesanales de la costa vizcaína. Su misión es garantizar una pesca racional y mejorar las condiciones de venta, además de impulsar campañas de promoción de productos como el bonito del Norte, **OPEGUI** – OPP de Bajura de **Gipuzkoa**, que forma parte de la Asociación de Organizaciones de Productores del Cantábrico (AOP Cantábrico), junto con OPESCAYA y OPPAO. Esta AOP es la primera de ámbito estatal y coordina a las OPPs del Cantábrico en materia de gestión sostenible de cuotas y mercados, y **OPPAO** – OPP de **Altura de Ondarroa**, dedicada a la pesca de altura. Ofrece formación, asesoría, gestión de esfuerzo pesquero

y cooperación científica, colaborando estrechamente con la Escuela de Pesca y las administraciones

### **Objetivos**

Sus **principales objetivos** consisten en: **gestionar** los recursos pesqueros de manera sostenible; asegurar el **cumplimiento** de cuotas, tallas mínimas y vedas; promover buenas **prácticas** de pesca; planificar la producción; ajustar el esfuerzo pesquero a la **demanda** del mercado; evitar la **sobrepesca** y la sobreoferta; mejorar la **comercialización** y el valor añadido; promover la **calidad**, etiquetado, y trazabilidad de los productos; favorecer una mejor posición de los pescadores en la **cadena de valor**, defender los **intereses** del sector pesquero y **representar** a sus miembros ante autoridades y organismos.

“Las ayudas aprobadas por el Consejo de Gobierno serán publicadas en el BOPV a finales de este mes, son para apoyar la actividad de estas tres organizaciones. Dicha actividad se recoge en los denominados **Planes de Producción y Comercialización-PPyC** que presentan anualmente, antes de que venza el año anterior. En base a dichos planes se estima la cantidad de la ayuda que se designa a cada una de estas entidades” explica **Amaia Barredo**.

Son documentos anuales obligatorios para las OPP y definen “**qué, cómo, cuándo y dónde se va a pescar y comercializar** el producto, cumpliendo con los objetivos de la Política Pesquera Común (PPC) de la Unión Europea”. Son cofinanciados con fondos FEMPA.

Un **Plan de Producción y Comercialización** incluye de manera genérica una descripción de todas las actividades que se plantean. El Gobierno Vasco lo analiza para decidir qué actividades propuestas son susceptibles de recibir financiación. Una vez publicada la orden, se emite una resolución por cada una de las tres OPPs indicando cual es el montante aprobado de los planes presentados.

Los **apartados** que recoge un Plan hacen referencia al Diagnóstico, Medidas de producción y comercialización, Sostenibilidad, Presupuesto e Indicadores.

## Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

---

### Amaia Barredo anuncia una convocatoria de ayudas a la transición hacia la producción ecológica certificada

- El presupuesto asciende a 300.000 euros
- Dos tipos: apoyo al asesoramiento y transferencia de conocimientos y al desarrollo de proyectos para la conversión de explotaciones convencionales a ecológica
- Ayudas a la transición hacia la producción ecológica certificada; creación de «Guías para la incorporación; estudios de viabilidad, demostración y visitas; y asesoramiento integral

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno a la orden de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se aprueban, para el año 2025, las bases de la convocatoria de **ayudas a la transición hacia la producción ecológica certificada**. El presupuesto asciende a 300.000 euros

Según detalla la Consejera **Amaia Barredo** “avanzar hacia métodos de producción sostenibles medioambientalmente constituye una **prioridad** política por las demandas sociales de la población europea reflejadas en la estrategias “**De la granja a la mesa**” y de **Biodiversidad**, que propugnan la consecución de una superficie del 25% de toda la Unión Europea bajo producción ecológica, o el crecimiento de la demanda de productos ecológicos”.

“Desde el sector agrario debemos contribuir a los objetivos de desarrollo sostenible y la agenda 2030, en aquellos ámbitos como son la **lucha contra el cambio climático**, el fomento de una **alimentación saludable** o la preservación del suelo y los **ecosistemas naturales**” ha añadido **Amaia Barredo**

Según los datos expuestos por la Consejera Barredo “la agricultura se enfrenta a un **desafío**: debe **producir más alimentos y fibras** para alimentar a una población creciente que según las proyecciones demográficas a finales de siglo podrían alcanzar los 10.000 millones de personas, lo que supone un aumento en la demanda de recursos del 70 %”.

“Además -añade Barredo en la explicación de la orden- este aumento en la producción de alimentos debe darse en un contexto de **cambio climático**, con una **escasez creciente de recursos naturales**, una **menor mano de obra**, y un **mundo mayoritariamente urbano**, las estimaciones afirman que la población urbana alcanzará el 60 % cuando en los 70 era sólo del 40 %, sin olvidar, la existencia de un conflicto bélico en liza, en el corazón de Europa, que ha condicionado el abastecimiento y el precio de los alimentos de manera importante”.

Para **Amaia Barredo** “cualquier **escenario futuro** requiere de nuevas fuentes de proteínas, sistemas de producción de vegetales con menor demanda de agua,

fertilizantes y fitosanitarios, y frenar las pérdidas y desechos alimentarios. Es por ello por lo que el objeto de esta orden de ayudas consiste en propiciar actuaciones que contribuyan a una **transición de parte de la producción convencional en Euskadi hacia la producción ecológica**, sin que ello suponga un enfrentamiento entre modelos productivos, y contribuya a superar viejos recelos entre productores de ambos sistemas productivos”.

### **Dos tipos**

Para ello se proponen ayudas de dos tipos: de **apoyo al asesoramiento y transferencia de conocimientos** e información en los sectores agrícola y forestal y en zonas rurales y **apoyo al desarrollo de proyectos para la conversión de explotaciones agrarias** con una producción convencional a ecológica.

Para el ejercicio 2025, se convocarán ayudas a la transición hacia la producción ecológica certificada como **apoyo** a la creación de «**Guías para la incorporación a la producción ecológica**»; a la realización de **estudios de viabilidad** de proyectos de conversión a producción ecológica; a las actividades de **demostración y visitas**; al **Asesoramiento integral** para la transformación en producción ecológica; al **asesoramiento especializado en producción ecológica**, y al **desarrollo de proyectos para la conversión de explotaciones agrarias** con una producción convencional a ecológica.

Las ayudas serán financiadas con cargo íntegramente a los Presupuestos Generales de Euskadi. Los **créditos presupuestarios** destinados a las ayudas convocadas mediante la orden son de 300.000 euros.

## Justicia y Derechos Humanos

---

### **Convocado el Premio René Cassin 2025 en favor de los Derechos Humanos**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy, a propuesta de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, María Jesús San José, la convocatoria de la edición XXII del Premio René Cassin, creado en 2003 para reconocer públicamente actuaciones destacadas en favor de los Derechos Humanos. Este galardón, que cuenta con una dotación de 25.000 euros, busca premiar tanto a personas como a entidades cuyo compromiso personal o profesional haya destacado en la promoción, defensa y difusión de los Derechos Humanos.

Las candidaturas serán valoradas por un jurado compuesto por reconocidas personas del ámbito de la convivencia y los Derechos Humanos, entre ellas la Viceconsejera Derechos Humanos, Memoria y Convivencia del Gobierno Vasco, Arritxu Marañón, Manuela Mesa (Directora del Centro de Educación e Investigación para la Paz, CEIPAZ), María Ojanguren (Directora de Gernika Gogoratuz y galardonada con el premio en 2010), Izaskun Saez De la Fuente (directora del Máster en Ética para la construcción social de la Universidad de Deusto), Miren Elgarresta (Directora de Emakunde), Juan José Álvarez (Catedrático de Derecho Internacional en la EHU-UPV), Mikel Mancisidor (miembro del Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales de la ONU), Carlos Martín Beristain (Experto en Derechos Humanos, Premio René Cassin 2020), Bárbara Ruiz Balzola (delegada de la UNRWA, premio René Cassin 2024), y la directora de Derechos Humanos y Atención a Víctimas, Ainhoa Zugasti.

El galardón está dotado con 25.000 euros tras el incremento aprobado en 2023 para conmemorar el 75 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y el 20 aniversario de la creación del galardón. Debe su nombre a René Cassin, nacido en Bayona el 5 de octubre de 1887, considerado el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y ganador del Premio Nobel de la Paz en 1968 por su labor incansable a favor de los derechos humanos

Entre los galardonados desde sus comienzos destacan personalidades y entidades como la Asociación Civil Abuelas de Plaza de Mayo, Desmond Tutu, Sexual Minorities Uganda, Federico Mayor Zaragoza, Alec Reid, Koro Erdozia Lasa, Elisa Loncon Antileo, Dora María Téllez, la Comisión Internacional Contra la Pena de Muerte y, en la edición de 2024, la UNRWA, la Agencia de Naciones Unidas para la Población Refugiada de Palestina.

El galardón, cuyas candidaturas podrán ser presentadas en los próximos meses, se entregará en diciembre coincidiendo con la conmemoración el 10 de diciembre del Día de los Derechos Humanos.